

**EUSKAL HERRIKO LURRERRIEN ETNOGRAFIA  
ETA ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALA: ATAUN  
AIA- Aguirre Josemarirekin Elkarrizketan**

**APALATEGI BEGIRISTAIN joxemartin\***

## AURKIBIDEA

### Sarrera

- I. *Euskal Herriko Herrien Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala*
- II. Ataun Aiako Aiarre baserriko Agirre Josemarirekin Elkarrizketan
- III. Ahozketasuna Eta Hiztura
- IV. Etnografia Bideak Zabaltzen

### Lekuan Lekuko Ikerlana

- I. Josemari Agirrearekin Elkarrizketan. Grabaketa Transkribatua. Ataun Aiako Aiarre Baserrian: 1984.05

### Bibliografia

\* Antropologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Antropologia Soziokulturaleko Departamentuko irakasle

## SARRERA

I.— *Euskal Herriko Herrien Etnografia Eta Antropologia Soziokulturula*. II.— Ataun Aiako Aiarre baserriko Agirre Josemarirekin elkarrizketan. III.— Ahozkotasuna eta hiztura. IV.— Etnografia bideak zabaltzen.

### I

Bermeoko Udalaren ardurapean ateratzen den *Bermeo* aldizkariaren laugarren zenbakirako bidali nuen honako idazlan hau: «Euskal Herriko Herri Arrantzaleen Etnografia eta Antropologia Soziokulturala - Ondarru - Txakar-tegi Mariajosefarekin Elkarrizketan».

Idazlan hau bilduma baten hasera izan zen, *Euskal Herriko Herrien Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala* izenekoarena hain xuxen. Bertako egungo herri mota guztietan etnografia egiten ari naiz, eta luzaro egiten arituko naizela aitortzen dut. Etnografiako ezagupen honen bidez euskal herrien antropologiazko ezagupenera iristea da nire ikerlanaren ezaugarri nagusia.

### II

Hemen aurkezten dudan idazlanerako itsasaldetik bamerantz joan naiz, baserrietaraino iritxiz. Nire jaioterrira, hots Ataunera.

Beraren auzo den Aiako Aiarre baserri bietako Matista eta Agirre Josemari emazesenarren familian egon naiz elkarrizketa batzu burutzen. Agirre Josemarirekin ia oso osorik 1984-eko maiatzen edukitako elkarrizketa lehenik grabatu egin nuen eta gero transkribatu. Azken hau lan astuna da. Argazkiak ere atera ditut, eta idazlanarekin batera horietako batzu joango dira.

Nire berriemailea nola aukeratu dut? Ataungo Aia auzoko pertsona zaharrenekin elkarrizketatzeko gogoia sortu zitzaidalarik, gure ama eta aitaren gomendioz emazesenar bi hauengana hurbildu nintzen. Egun hau baino lehenagotik berauek ez ninduten ezagutzen, eta nik herrian inoiz ikusita aurpegiz bakarrik ezagutzen nituen. Nire gurasoek, bai!, hauek ondo ezagutzen zituzten. Hamaika modu dago etnografiako berriemaileengana iristeko!

Amonaitonek, amaitek eta alabasemeek oso ongi hartu naute. Gure artean konfiantza haundia sortu da, eta hori gabe etnografiarik ez dago egiterik.



Ataun Aia auzoan 1984-10.21.7: bazkalostean. Iparralderantz. (AB. jm).

Zergatik, ordea, lehen lehenik Ondarrura eta Ataunera jo dut *Euskal Herriko Herrien etnografia eta antropologia soziokulturala* bilduma hasterakoan? Nahi gabe jo dut herri desberdin hauetara, eta hala ere arrazoï bat eta berberagatik horrela jokatu dudala gero ohartu naiz, honexegatik: berriemailearen kulturaren mulgirtzeko era errexena eta zihurrena norbera baita ere kultura berekoa izatea da, eta Ondarrun bost urtez ikastolako irakasle egon nintzen eta Ataunen nire jaiotokia dago. Ezaguiaren eta ezagutzailearen arteko bidea motza eta harremanak ondo saretuak beti izan behar dute. Urrutitasunaz ez gauzen berririk ez eta pertsonen asmorik eskuratzen dira. Pertsona ororen ezagupenean, bizitzakoan nahiz jakintzazkoan, *emic* dago. Ondoren, eta bakarrik ondoren, *emic* desberdinen ezagupenetik *etic* dator.

### III

Ataundarra jaiotzez naizenez, nire ataundar berriemailearen hizkera errea zait ulertzen. Grabaketa transkribatzeko eskatu nion Donostian nik irakasten dudana Fakultateko emakumezko ikasle bati. Mutrikuarra, bera, ikasle habila eta langilea, iadanik nirekin antropologiazko lanetan dabilena. Ez du ulertu ataundar berriemailearen hizkera, eta grabaketa berriro oso osorik transkribatu behar izan dut. Hori hizkuntzari dagokionez. Beste horrenbestexa esaten dut berriemailearen kulturazko munduaz, hau da, Ataungo eta beriziki Aia auzoko bizimoduan sartugabe dagoen batentzat berri asko eta asko ulergaitz gertatzen da. Komenigarri da, ba, beraz, antropologoak bezala beste pertsona zientzietako azterlariak beren bizitzagatik ezagunena zaien hartatik ikerlanean hastea. Piskaka piskaka profesiozko trebetasunean gaitzen dihoazten negurrian ezezagunago zaien gauzetan hasteko oinarrituagoak egongo dira. Berriro, *emic-etik etic-erako* bidea!

Grabaketa transkribatzerakoan, hots guztiak, ulertuz gero, entzuten diren bezalaxe idazten ahalegindu naiz. Halere, batzutan hots bat errepikatzerakoan desberdintasunaz esana izan delako edoietara lehenago idatzi dudanean zihurtasun osorik gabe egin nuelako desberdin idatzi dut aldi batetik bestera. Ez da batere errea zailtasun hau belarri hutsez gainditzea. Gainera, ahazkotasunean hitzun berberak behin baino gehiagotan hotsak aldatzen ditu, nahigabe bezala nahita baita ere. Bilduma haundi honen jarraipenean, ikerlan gehiago guineratzen nihoakion moduan, arazo hau eta beste hainbat zuzenez zuzenean askatzen ahaleginduko naiz. Ez dut ahaztu nahi, eta irakurlari ere ez dezala ahantz eskatzen diot, ikerlari gaztea naizela eta gordintasunetik heldutasunera eginala bilakatuko naizela, edozein ekintzatan beste edonorren antzera.

### IV

Idazlan honetako testu guztia hitzez hitz transkribatu badut honexegatik izan da: ahazkotasuna sakon sakonetik aztertzeke. Hitzegiten dugunean, eta egunero eta mundu dena beste ezer baino lehenago hitzegin eta hitzegin ari da, hitzak ekintzaille dira, beti. Horrexegatik hitzura idazturaren aldean desberdina da zenbait puntutan.

Desberdintasun hauek hizturan jasotzen joateagatik, idatzi transkribatuaren ezkerreko aldetik Barandiaran Joxemiel antropologoaren «Galdeketa Etnografiko Batetarako Gidaliburua»-ko (GEG) galderen zenbakiak, egoki denero, agertzen dira. Ataundarraren *Obras Completas-etako* 21. tomoan dator galdeketa lehen aldiz euskeratua, neronek euskeratu nuelarik. Galdeketa honetako zenbakiak gainera, egile berak *Euskaldunak*, 4 argitalpenean azaldutako «Apéndice A La Encuesta “Etniker”» delakokoarenak ere idatzi transkribatuaren ezkerreko aldetik agertzen dira. *Apéndice* hau euskeratua (= «Eraskina») daukat baina argitaratu gabe, eta nire idazlan honetan E letraren

bidez adierazten dut. Horrela Barandiaran Joxemielen oinarritzko galdaketa burutuz batera berriemailearen ahozkotasuna sakondu ahal da. Esate baterako, idatzi transkribatu honetan berriemaile Agirre Josemarik bi kontuzahar botatzen dizkit, eta bene benetan hitzez hitz jasotzeak erabat ahozkotasunera hurbildu gaitu. Hori gure artean ez da egin izan, hau da, ahozko herri produkto luzeak, zeinak dira kontuzaharrak, berriemailearengandik entzun bezalaxe eman, hitz bat ere aldatu gabe. Zertarako da hori baliagarri antropologiazko ezagupenean? Ba, lehen lehenik hiztura nolakoa dugun ezagutzeko, eta ez da gutxi hori ezagutzea. Gero, azterlanen bidez iritxiko gara ezagupen gehiagotara. Hauen artean bat idazlana irakurtzearekin bakarrrik ageri agerian dago, eta zera da: galdeketetan antropologoak ordena bat aurretiaz ipinia dauka, berak halaxe hobetoen antzemandakoa, baina, berriemailearekin antropologoa elkarrizketatzerakoan galdeketako galdera bakoitza berriemaileak berak beste galdera batzuekin nola uztartuta eman dituen azaltzen da. Horren zergatia antropologoak bere kontura ari denean harrapatuko du. Barandiaranen galdeketa eta eraskinari beste zerbait ere gehitu nahi diet berriemaile bakoitzaren ahozkotasuna azpimarkatzearren. Aurkibide batzu: analitikoa, pertsonena, toponimiazkoa. Hauen bidez berriemailearen ahozkograma lortzen da. Hori hurrengorako!

Beraz, irakurlea konturatzen da euskal antropologian gure aurreko maixtra eta maixuek egindakoa lehenik berreskuratu eta gero ahal bada zabaldu dela nire ustetan gaur euskal antropologian egin behar duguna. Ni bide hortatik geroz eta gehiago ibiltzen ahalegintzen ari naiz, eta zihurtasun osoz beterik nago gaur bide hortatik hobetoen euskal antropologiaren nahiz beste herritakoaren zabalketara iritxiko garela.

# LEKUAN LEKUKO IKERLANA

## I. JOSEMARI AGIRREREKIN ELKARRIZKETAN. GRABAKETA TRANSKRIBATUA

(ATAUN AIAko Aiarre baserrian)

1984.05

### Hitz laburtuen esanahia:

GEG E

A,jm.—Agirre, josemari  
AB,jm.—Apalategi Begiristain, joxemartin  
m.—matista (A,jm.—ren emaztea)

III-9, 10  
I-10

15, 16, 17 A,jm.—...Zortzi urtetako basoa jun gitien da, hamalau urte bas *basoan*  
pasau nitun nik neone keta, geo e beiz e (eztulak entzuten dira) *mandazai*  
beste bosturte  
AB,jm.—Beste bost urte, nún?  
A,jm.—Mandazai, mandokin  
AB,jm.—Bai, bai  
A,jm.—Mandokin ikatzetan  
AB,jm.—Baita. Eta zortzi urtekin esaten dezu joan ziñela  
A,jm.—Bai, basoa  
AB,jm.—Basoa  
A,jm.—Zortzi urtekin bai, zortzi urtekin  
AB,jm.—Ta han bertan hamalau urte pasau, eztá?  
A,jm.—Bason, bai  
AB,jm.—Segidan, orduan e hama hogeitabi urtearte  
A,jm.—Bueno etxea, negun etxea etortzen ginen da, baino behintzet  
diario basoon, arrezkeo  
I-II 1 AB,jm.—Bai. Zu hemen, etxe hontan (*Aiarre* baserrian, alegia) jaiotakoa  
zeá?



Ataun Aia auzoko Aiarre baserrian Agirre Josemari berriemailea bere emazte Matiskarekin logelan. Aulki hutsean idazlan honen egilea elkarrizketa denboran eserita egon da. 1984.07.11.3 (bazkalostean. (AB. jm).



GEG

- E  
A,jm.—Ez, ez. Ni e hor eliizen barreneko étxen Etxeberrín  
AB,jm.—Etxeberrikoa
- 2 6  
A,jm.—Geo (pertsona abotsak entzuten dira, emakumezkoarenak) re  
*Frantziin* izen giñen beste bi urteen  
AB,jm.—Baita, baita
- 23  
A,jm.—*Iratiin* ne bai beste urte beten  
AB,jm.—Iratín  
A,jm.—Bai
- 15, 16, 17  
AB,jm.—Orduan hoixe kontau iazu, zu hemendik ke zortzi urtekin *basoa*  
joaten hasi ziñenean lenengo zein tokita joan ziñen eta hola segidan  
A,jm.—Urbusuu (hitz moteltasun pixka bat) urteateen da *Aizkorrin* beste,  
mallon beste urteateen da. Geo e, hemen *Putterrin* besteateen da. *Frantziin*  
beste bi urte ta *Iratiin* beste urte bete ta. Geo hemen besteon bat te akaso  
ahaztuta eongo naiz ni oañ, baño asko gutxigo ezte izingo behintzat (hitz  
moteltasun pixka bat) geo *manduzai* bost urte  
AB,jm.—Bai mandazaiena beranduago, ezta?  
A,jm.—Bai
- 23  
AB,jm.—Ba lenengo basokoarena aipatuko deu. Eta zu hemendik joan  
ziñenean zurekin batea beste iñor ere joan altzan?  
A,jm.—Bai gu hemen *nausii*, hemengok giñuzten *Harbilletako* ta *nausii*  
hemengok giñuzten guk *Frantziin*. Da ze hor Urbanen ne bai  
AB,jm.—Hori da. Eta zure edade modukoak ke beste gehiago ere joan al  
zien hemendik?  
A,jm.—Bai, bai, gu e, gu e  
AB,jm.—Zeintzuk gogoratzen al dittuzu?  
A,jm.—Zeintzu, bai. Hemen, e, *Harbilletakoak* ke bi tte  
AB,jm.—Beren izenak  
A,jm.—Izenak ke, Elias ta *Patxi* eta geo hemen, e, *Aigualdekook* beste  
*Santos* ta *Patxi* tta. Geo zeakok *San Martingo...* (amona eztulka) Atxu,  
*Atxuloko Enrike* ta
- 23  
AB,jm.—Nungó?  
A,jm.—Atxúlokoa, *Harrondokoá*, Atxúloko Enrike. Ta... hemen (amona  
eztulka berriro ere) *Lazkaokook* beste hiru lau bat, beste *Lazkaokook* bai,  
tta *Antzuolakook*, *Bergarakook*, da (isilunea) (eztulka amona)... (hitz motel-  
tasuna) *Iratin*, e, eon giñen, e, berrogeita gehiau koadrillan  
AB,jm.—Da denok hemen ingurukoak?  
A,jm.—Ba hemendik, *Bergaratik*, hemen, *euskaldunek* behintzet  
AB,jm.—Hori da, gipuz gipuzkoarrak  
A,jm.—Bai *gipuzkoarrak*, *euskaldunek*  
AB,jm.—Hori da. Eta zenbat te denboan, e, aldiko eoten ziñeten basoan?  
A,jm.—Sei *hillabete* etxea etoibé  
AB,jm.—Ta zein, urteko zein sei *hillabete* izaten zien?  
A,jm.—Urteko sei hilla sei *hillabete* pasatzen zien ordun  
AB,jm.—Bai, eta zeintzu sei *hillabete*? *Haserakoak* edo *erdikoak* edo  
A,jm.—*Maiatzen* jun da agorren etorri, agorren eo urriñ eo allatzen zen  
nuun. *Santu Guztin*etan ne etorri giñen urteaaten da. Taste (!) posturortaa  
AB,jm.—Hori da. Eta zuen, e, lana han zer izaten zan?  
A,jm.—*Ikatza* eittea. *Egurre* txikittu
- 15, 16, 17

GEG

E

15, 16, 17

AB,jm.—Hau da, eun bat te kontatu zazu, eunaren haseratik hasi eta gaueaño e zertzuz gauza egiten zinuizten

A,jm.—*Egurre* txikitzen aittu aurrena ta geo ikatza gauen, ne, hamabittan eo atata ta *ikatza* taatzen aittu, aitzen giñen geo. Ikatza, ikatzen negozioa gauen izaten da ba ateatzeko, bestela sue ikusten da bestealdea. Da ikatzen negozioa da gauen, ne, beti era hortaa iziten da

AB,jm.—Eta ze egur klase erabiltzen zenuten?

A,jm.—*Pagoa*, pagoa

AB,jm.—Pagoa

A,jm.—Pagoa (ondo aitzen ez zaizkion beste hitz batzu ere)

AB,jm.—Eta lodia izaten zan egur hori?

A,jm.—Etzan oso lodia izen

AB,jm.—Baita

A,jm.—Han propietariona basoa hartuta zan ba ta etzan oso lodia izen

AB,jm.—Hori da. Eta lotakoa ta hori nola egiten zenuten?

A,jm.—*Lo txabula* aten. Txabulea ein da txabulea ta hautza bildu ta han, han geen *kamañak* ein da

AB,jm.—Zenbat, e, lagunentzat gutxigorabera?

A,jm.—Guk ke *Frantziñ* lehendabiziko urten, e, guien hogeitabi hiru, ta bigarreanean, e, hamalau hamabost, hola. Da *Irutiin* beiz, e, berroetabost sei bat bagiñen *koadrillan* txabulan

AB,jm.—Danok txabola berean

A,jm.—Txabola aten, bai!

AB,jm.—Ta txabola hoi nola zeon distribuituta barrundik?

A,jm.—Barrun, e

AB,jm.—Hau da zein aldetatik sartzen zan txabolaa eta nola zeon distribuituta

A,jm.—*Txaulea* atea bezela eiña aurreko aldetii tta geo

AB,jm.—Hola luzeetan eztá (eta nire bi eskuez esandakoa airean marrazkitzen diot)

A,jm.—Bai

AB,jm.—Luzeetan sartu

A,jm.—Luzeetan bai, luzeetan sartu. Erdin sue eiñ da *kamañak* bi albotaik iziten ziela ganen suana *hankak* ziela etza etzaten zan jendea ta, *sanidadeako* beti holaik hanke *izardii* tiatzen zola suuk eta

AB,jm.—Nundik tiatu?

A,jm.—Hanke izardie suuk tiatu, hankaatako zea, umedadea. Hareatik suu hankaata, sue erdiin eiñ da kamañaata bi aldeetatik

AB,jm.—Orduun bueltan, eztá?

A,jm.—Bai

AB,jm.—Ta hor, e, hainbeste lagun sartzen ziñeten, e?

A,jm.—Bai, bai (eztarrie pixka bat garbitzen du)

AB,jm.—Danok lo, e, ta kamañak nun zien lurreen edo?

A,jm.—Lurreen ein da

AB,jm.—Ala altura piskan edo?

A,jm.—Altura pittin bat ein da baño gutxi, egur egurrekin ein da

AB,jm.—Bai, esaidazu nola egiten zenuten

15, 16, 17

1-27, 28

1-27,28

15, 16, 17

II-15, 65

GEG

E

A,jm.—Bueno ba, egur lodie jarri aurrena ta geo uurruna bota zeak (amona eztulka, piskatxo bat) egur mexa, a, mexagokook, zotza urruna ta geo gañen illarea bota ta geo manta eo zeakin itxen zienak

AB,jm.—Hoi da. Eta zuek, ke, *arropak* keta nola izaten ziñuzten, e?

A,jm.—Ba eantzitta

AB,jm.—Dana eantzita

I-90

A,jm.—(Hitz moteltasuna, ezer ulertzen ez zaiola) *pantaloiak* eta *arkon-darea* besteik ez

AB,jm.—Hori da. Gaiñeantzikoa eantzita, eztá?

I-104

A,jm.—Bueno eantzita. Haak *buukok* ein da, geen geen geen azpin jartzen giñuzten haak

AB,jm.—Hori da, hori da. Eta zeñi ordukaldean, e, lota joaten ziñeten?

I-37

23, 5

VIII

A,jm.—Ordun, e, *udaan*, e, eune hama hamarrak, e, (amona eztulka, piska bat) askotan iziten zien, e, *illun* illuntzeako, eta lanetik etorritta seitzun ordun *apalduta*. Etzan, e, kontuik esaten lanik iziten. Baño geo *Santiotatik* aurrea hasten zan jendea *ziarroa* erre eo, *kontuk esan* eo zerbait esaten etzate *etzateako* afalduta, zeatik gaue piskaat luzau eitzen zan ba. Da (hitz moteltasun pixka bat) bitarte hartan hala eotentzan baño, beste gañetikon, e, beste *udan udaberritio* behintzat, e, jan ezkeo auro hitzipe *etzatea* azkar...

15, 16, 17

AB,jm.—Hori da, hori da

A,jm.—Ne nekauta eoten da jendea ta

AB,jm.—Hori da. Eta esan dezu ordea, Santioetatik aurrea ba kontuk ke

VIII

A,jm.—*Kontutan* bai

AB,jm.—Kontutan eoten ziñetela

A,jm.—Bai, bai

AB,jm.—Eta ze kontutan, e, ze?

Ajm.—...(ez zaio ondo ulertzen)

AB,jm.—Kontutan ze kontu klasetan?

A,jm.—Gauza guztiin *pasaitzook* ...zea.. esan da, eitzen giñuzten

AB,jm.—Eta kontuk esaten aiziñeten bitartean, han e sun bueltan jarrita?

23

A,jm.—Bai, bai. Batzuk *ziarroa erretzen* zuenak ziarro erretzen da bestek kontuik esaten bata bestekin da. Piskaat *ein denborea*. *Santio* pasau ezkeo hala eoten zan jendea

AB,jm.—Hori da. Eta zenbat denboran bezala eoten ziñeten, hola?

A,jm.—Oo, ordu bete eo, bi eo, jendea piskaat aspertu arte

AB,jm.—Hori da. Hamaikak, hamabiikarte

A,jm.—Bai, ba ba hola ba, *hamaikak hamabik* hola

GEG

G

AB,jm.—Hori da

I-37

A,jm.—Zeatike hamarrak ke (eztulka amona, piska bat) *apaltzeko* iziten zien da

AB,jm.—Baita, baita. Eta zuk, ke, gogoatzen al dezu momentu honrtan ba kontuk esaten aitzentziñeteneko pasaizon bat edo hola lehen denboa bateko kontu batzuk ke hola esatentzinuzten hoietakoren bat edo, gogoatze al dezu?

VIII

A,jm.—Bata besteekin... *pasaizu histori zaharrak* ke, igual da askotan eta

AB,jm.—Ta holako histori zaharretakon bat gogoatze al dezu?

A,jm.—Baiiii (farrez)

AB,jm.—Bota bota

A,jm.—Baiii (farrez)



Ataun Aia auzoan Agirre Josemari berriemailea bere baserriko (Aiarre) atarian. 1984.07.11.3. bazkalostean. (AB. jm).

GEG	G	AB,jm.—Bota bildurripaik. Ondo zaude, e? (amonari galdetzen diot)
VIII		m.—(Farrez) Bealdikoana etorria gaur (farrez, neu) <i>kontuuk esateko</i>
		AB,jm.—(Farrez) Ordun, e, bide zuzenean etorri naiz gaur
		m.—Bai! usteepaietz
		AB,jm.—A, ba, asko poztutzen naiz horrekin. Zuk ke
		m.—Hoi dala hemen dan, e, zeik haundiñekoa
		AB,jm.—A, bai! Zuk ke izango ituzu bakarren batzuk beharbada?
		m.—Nik kez batee. Nik ke jan da lo
		AB,jm.—(farrez) Ederki, ederki! Bueno, ordun, e, Joxemarik, ke, jarraitxu dezala
VIII-Esaundak eta ipuinak		A,jm.—Behiñ baten, e
		m.—Bai, Joxemarik koanto
		A,jm.—Hau esandako kontue da
I-107		<i>Joan Soldadu</i> hill emen zan da, zea eskatu ementzian <i>Sanpedroi, zakue</i> , harekin nahi zona munduun eitxekon. Ta, hala esan ementzian:
		—Geo, e, etzaiz etoiko honea, e, geo, hemen ez dek lanik izingo, horrekiñe juuten bahaiz han ibiili beharko ek
		—Behintzat ekatzu honea hoi ta
I-1		Eman ementzian da. Etoi emen zan, e, herri atea ta, <i>deabruk</i>
II-207		eindako <i>ezkontzea</i> emen zeon etxe hartan. Da esan emen zion, e, zeak, ke. Sartu emen zan barrua ta. <i>Andra gazteek</i> esan emen zion, e:
VIII-67		—Gaur gauen, e, eztauku ba <i>iñor hartzeko ordenaik</i> —esan emen zion da:—
22		—Ni, e, hemen eon baapa —san emen zion— Ni hemen eon baet. Nik zuun berri baakitt eta ni hemen eon baet
		Da goizeko <i>ordubitan</i> etortzeko emen zeon deabru hoi haata, beste hoitta biitta, hark eindako ezkontza ze horta
		—Da ni gaiñea zuen kuarton <i>etzun</i> behaet —esan zion da jarri... jarri ementzian da, hala <i>hamabittatik</i> ordubitta etorri ementzan. Atea jo emen zion da:
		— <i>Jei</i> ein beharko deu —andrek esan emen zion da:—
GEG	E	—Ez, ez! <i>Ateek</i> zaaldukoittu horrek —da, esan emen zion, e. Ateek zaaldu ta <i>koarto</i> ateá zuzen jun ementzan da—
VIII-Esaundak eta ipuinak		— <i>Jesus</i> nee <i>Jainkoa</i> , atea zaalduiun guk horri aguro —andrek eta—
II-173		—Zuk lo hor eiñ, nik arreglaukoet hoi —esan emen zion. Da, hala sartu emen zan aten. Da— <i>Zakue</i> , harrapau zak oain —san emen zion—
		Da zakun sartu zea hoi, deabru hoitta ohian azpia bota ementzon. Da:
		—Jesus nee Jainkoa —esan da:
		—Ez ikatu, e, oain nahiko <i>lo ein</i> . Ezta, honek eztizu eze eingo
		Hurrungo goizen, e, <i>eune</i> zaaldu ementzon da esan emen zion, e, zeai, e, (eztarria garbitu du):
VIII-Jaiak		—Herri hontan, e, lau motil hobeena <i>balenkakin</i> ekarri itzezue ta honi, zaku honi hari, harik ezetz hautsi —esan emen zion—
I-8		Da <i>plazaa</i> eaman emen zoen da geo hala ekai emen zioen motillek keta han ementzeon deabru zakun baiño, besteek, ke.

GEG

E

balenkekin joatio (eztulka amona) sake eitxe emen zion balenkek ta hariik hautsi ez zakuri, ta hala nahikook ein zittuen garaien esan emen zien:

—Oain nahikook einditxuzue? Etxi zue hauste eztuzuela?

—Ta:—

—Bai, bai! Ezteu guk, guk eztiou hausten

I-19

Goien *balkoitan* da jende asko emen zeon da esan emen ziiñ, e:

—Zuek barrua sartu piska at, zeati hau, e, ezta gustoa eon hemen, e, eta oan libratzen deanen, e, indarra eamangoo honek, e, hemendio —esan ementzien (farrez)—

VIII-Esaundak  
eta ipuinak

Da, hala tiasi ementzion hari txikiati, ta, bai! suutagar han... ta danak botatzen zitula jun emen zan, *deabru* zahar hoi! Da geo *gauen*, e, bertan, e, beitze bertan euki nahi emen zoen, e, senaremazte horik, beitze. Ta:

III-langintza  
taldeak

—Ez, e, ezta etoiko hue beitze honea —san ementziin— honea ezta etoiko beitz. Nik, e, beste lekun baten, e, *zerbait igual billaukoet* eta be jun ein behat beitze

Hala bee *zakue hartu galtzarpeen* da *esken* bezala jun ementzan da esan emen ziiñ, ñe, han nunbait *gaixotu* ementzan da hala zeillela ta:

—Nei zaku hau ni hiltzen naizenen *buun azpin jarri, e*

I-107

Da hala hark esan bezala hil emen zan da *zakue jarri* emen ziiñ burun azpiñ. Da beitze han presentau emen zan hue *Sanpedron* ateetan. Da Sanpredroi esan emen zion, Sanpredroi esan emen zion e:

—Ea nei atea zaalduiazu, Sanpedro —ta—

—Lehen, e, hementxe eitzen. Oan juunai beste ate horitta —esan ementzion. Da:—

—Bai! juungo naiz

Atea jo emen zion behera junda ta:

—Zein da? —ta:—

I-107

—*Joan Soldadu* —ta:—

—Atoztea honea, txikiik eta haundiik, lehene honek galdu netuan ni ta esan emen zien (farrez)

Danak ateei eustea, korrika ta (farrez). Bai, geo, ordun esan ementziin ba:

—Hor, hor, horree ezeopa neetzako sarbiderik keta

Sanpedroi esan emen zion, e:

—Ea zirriztu txikiat eizazu nolakoa dien ikusi itzean

VIII-Esaundak  
eta ipuinak

Da atei zirriztu txikiat ein ementzion da *zakue sartu* (eztulka amona, pixka bat) ta *Sanpedro zakuun sartu* ta barrua sartu emen zan bea. Ta Sanpedro librau eta oain ondo bizi emen die (farrez)

VIII-Oharra

m.—Aaa, ixilik zaare *gizona* (hirurok, farrezka)

AB,jm.—Oso politte zan ezta?

m.—Bai! majiñat urteatzutan (!) esaitxotzú (farrez Joxemarii)

AB,jm.—Askotan esan al dittu?

m.—Bai

AB,jm.—Oso ondo! Bestanbat gogoatzen al dezu, han, e, entzundakoik?

A,jm.—Han entzundakok bai, han beste batzuk.. bañe, bai, bañe, danak esango ittuu oaiñ?

GEG

E

AB,jm.—Beste bat, e, nahiko nuke, gaur e esango ba zendu (farrez Josemari)

2 3

A,jm.—Bai, e, beste bat, e

AB,jm.—Han, e, entzundako bat. Zeatik aurreko hau esan dezu hor, e, *Iratiin* entzundakoa ezta?

A,jm.—Bai, bai

AB,jm.—Hori da

A,jm.—Bai han, e, han, e, jeneral gehienak, gauen da *tertulin* jendea, jende nahastue zan ba asko ta batek ezpaa bestek beti zerbait jakin eittentzon, da hala esaten zienak ziin horiik. Bai beste bat, e

VIII-Esaundak  
eta ipuinak

Gizon bat emen zihon, e, bide aurrea. Da kamioa atea zen garaien (erlojoaren kanpaiak entzuten dira. Arratsaldeko zazpiak) *legoia* eta *usoa* eta *txingurrie* burrukan ementzeiltzen, behi *zaharren* bat ezi ezin janik, eta:

—Ator honeá esan emen emen zion legoia...

Jun eñ behar (amona eztulka, pixka bat). Jun ementzan da:

1-39

7

—Hike puska itzek hok; hau puska... guri

Da zeai, e, legoia *hezur* handiñak eman eta *muñek*, e, zeai txingurriri eta zeake usori *mamintxoñak*. Ta legoia esan emen zion, e:

VIII-84

—«Ni, ni nauk Jangoiko ta legoi» tta nahi deana hi mendean izangoek —san emen zion—

Da besteke, usoke, e:

—«Ni nauk Jangoiko ta uso» ta nahien dinben korrittukoek

Ta txingurrike:

—«Ni nauk Jangoiko ta txingurri» ta nunnahi sartuko haiz —esan emen zion—

Da, hala, ba emen zihon mendia gora ta, ...ein behar diat pa nik eta heldu ementzion pagoritta:

1-2

—Niaj, «ni nauk Jangoiko ta legoi» —tta *pagoa* ipurditik atea ta bizkarren hartu emen zoon. —Niaj, halere bastante ondo natxok oaiñ

Da ba ementzihon jun da junda, *etxe txiki* at billau emen zoon, ez leioik, ez ateik ta ezerrebekoa. Ta esan ementzion. Pentsau ementzion, e: «Hau, e, ze ote a beiz hau?». Da:

—Ni nauk Jangoiko ta txingurri» —ta sartu ementzan barrura—

Ta *emakume* bat emen zeon, emakume earra gaiñea, barrun. Da:

—«Ni nauk Jangoiko ta pertsona» —ta bertan gizon bihurtu eta eseita jarri emen zitzaion. Da:—

1-11

—Gizona, aldein zazu hemendik, gizona, hau *deabrun etxea* da ta, ni harrapauta ekaita naukea hemen da esan ementzion

—Bestela, i, ho, eo, ikusten bazaitu hook txikittuko zaitue horik keta

—Eztauket nik horiin bildurrik —esan emen zion—

Da geo hala urrengo gauen esan emen zion, e (eztulka pixkabat amona):

—Ea nola hue hill aleikeen ateatzen diozun

Etoi ementzan *deabru zahar* hoi ta:



Ataun Aia auzoan Agirre Josemari berriemailea bere baserriko (Aiarre) atarian. 1984.07.11.3. bazkalostean. (AB. jm).



GEG VIII-38, 63, 67	E	—Hementzeon kristau usaie —eitxe ementzion— hementzeon kristau usaie. —Da: —Oain zu, e, hemendio hola hiltzea nolabait gertau ezkeo, nola? nik ze ein behar nuke hemen etxe hontan?
VIII-62		—Ni hiltzeko, é, hoolako <i>leizetan</i> zeon, e, nee laune. Haren, e, barrun zeon <i>belea</i> ta bele haren, e, bela hari arraultzea zeuken harek keta haren <i>arrautzekin</i> ni kopetan jobe enon hiltzen ni —esan ementzion. Da:— —Larri ibiliko haiz —beste horrek—
II-201	2 3	Hala urrungo goizen, e, juun ementzan uso bihurtuta leizea ta hortaa ta <i>euzkittan</i> han emen zeen <i>koadrillea</i> (eztulka amona pixka bat). Da jatzemendo ko kopetan ba zea hoi. Helduta burrukau do hil hillik... emen zan dana. Da haren tripatio etaata usoa beheti gora, eo belea. Beste hoi uso bihurtuta juun da atzetik harrapau do. Da geo hala, hue harrapau ta hari arraultzea kendu ta orduako gaizkittuta ementzeon. No eziñ bee buruu eusin eta balantzaka emen zeon orduako deabru zahar hoi. Ta jo arrautzekin kopetan da leizea bota emen zoon hue. Da geo etoitta neskei esan ementzion da biik <i>ezkondu</i> ta ondo bizi emen die oain (farrez)
VIII-Oharra		m.—A, ixi ixilik zaare, Josemari (farrez Josemari) AB,jm.—(Farrez), Ze, ez al dezu uste ala, ? m.—E? AB,jm.—Hori uste ez ala? m.—Eztait AB,jm.—(Farrez). Ederki! A,jm.—Bai
VIII-Esaundak eta ipuinak		AB,jm.—Ta zein zenduen zuek, ke, bigarrego hau esan dezun honen izenik bai al dakizu? Lenengoarena esan dezu «Joan Soldadu», eta bigarren histori... A,jm.—Bigarrena, e, zea, gu bezelako libre zeillen, ze emen zan hoi AB,jm.—Hori da A,jm.—Hoi mendia juun da mendia zihon da. Hoi, hiruek kan, e, burrukan emen zeiltzen zen, e, <i>ganaue</i> batek osoa nahitta bestek osoa nahitta emen zeiltzen. Da harek puska ta eman da bea (hitz moteltasun pixka bat) segi bee bizin billa bee traste horiikin AB,jm.—Hori da A,jm.—Eta geo han, e, etxea, etxea ikusi zoonen, e, AB,jm.—Hori da A,jm.—Zea, zea harrapatzen zoon e, zea ikustentzoon ikusu. Etxe bat ementzoon harek etoi zanen AB,jm.—Hori da. Hori da A,jm.—Neskeekin ezkondu ta oain ondo bizi emen die haak
VIII-Oharra II-201	5	m.—Bai hortxe (farrez Josemari). Bodea atzo izingo zoen (farrez Josemari). Ixili zaare (eztarrria garbitzen Josemari, pixka bat). Horiik nundik jakin dittuzu? Ixil ixilik zaare AB,jm.—Ederki, ederki! Oso polittak m.—Bai, bai! AB,jm.—Eta m.—Majinatxo, horiik hola eukitzeko! (farrez Josemari)

GEG	E	<p>AB,jm.—Eta han, e, zuke, bi hauek eta beste gehiago entzundakoak, gogoatzen altzea nortzui entzundakoak?</p> <p>A,jm.—E?</p> <p>AB,jm.—Nortzui entzundakok dien han, e, Irutiifi edo beste leku batzutan, egontziñen entzundakoak die eta nortzuengandik entzundakoak diren gogoatzen al dittuzu? Nork lenengo aldiz?</p>
VIII-Ikastola	5, 7	<p>A,jm.—Bai zea, ez, ez, <i>saillen koadrilleen</i> e, hola esanda... zeñek ez. Danak bata batezpaa bestea beti <i>esaten</i> aitzen zien eta gu, e, ni, e, <i>Iratiin</i> behintzet gaztea nintzen motil koskorra nintzen arteen. Arteen ni, e, enittun izingo hamar hamaikaan bat urte besteik</p> <p>AB,jm.—Hoi da</p>
I-27, 28		<p>A,jm.—Da han, horrek xoxoa bezelaxe aitzen eon. Ni, danak batek bat besteek besta, danak zer bait esaten, han, e, <i>eurie</i> ai zoonen, e, <i>txabolan</i> eoten ginen ba, opor eo zeakin</p> <p>AB,jm.—Baita</p> <p>A,jm.—Da</p>
I-11		<p>AB,jm.—Eta hemendik, ke, zortzi urtekin basoa joan aurretik zure etxean, <i>Aietxeberrikoa</i>, <i>eztá?</i></p> <p>A,jm.—Bai, bai!</p>
I-Familia		<p>AB,jm.—Esan dezu zeala. Garai hartan, e, bi <i>famili</i> zien edo bat edo</p> <p>A,jm.—Bi, bi</p> <p>AB,jm.—Bi. Eta zure etxean, e, zenbat senide ziñeten?</p> <p>A,jm.—Gu, e, zortzi bagiñen beintzat, se...</p> <p>AB,jm.—Zenbagarrena zeu?</p> <p>A,jm.—Ni, e, zaharretik hirugarrena, <i>arriba</i> ta <i>anaie</i> zaharragook zien da ni hirugarrena</p> <p>AB,jm.—Eta zure segidakoak, e, nola zien?</p> <p>A,jm.—Nee segidakok, ke, hemen, e, oandik bizi die, arriba hil zitzaian baño <i>Lazkaoko...</i> beste aiñetikoon, e</p> <p>AB,jm.—Bai!</p> <p>A,jm.—Besteek bizi die oaindio</p> <p>AB,jm.—Ta zenbat gizonetzko ta emakumetzko ziñeten orduan, zortzieta-tik?</p> <p>A,jm.—Sei <i>gizon</i> da bi <i>emakume</i>, bi <i>nexka</i></p> <p>AB,jm.—Ta neska esan dezu zaharrena <i>eztá</i>, ala bigarrena?</p> <p>A,jm.—Zaharrena motille. Bigarrena neska, hirugarrena ni</p> <p>AB,jm.—Eta beste neska hori zenbat garrena zen?</p> <p>A,jm.—Laugarren, lau, boskarrena hoi</p> <p>AB,jm.—Boskarrena</p> <p>A,jm.—Bai</p>
I-1		<p>AB,jm.—Eta zuk, ke, gogoatze al dezu <i>basoa</i> urten baño lehenagotik, zure etxean egon ziñenean edo hemengo beste etxean batzutan edo ezta, <i>Aian</i> hemen nunbaitean, holako kontu edo <i>histori zaharrik</i>, ke entzundako-rik?</p>
II-174 VIII-11	15, 16, 17	<p>A,jm.—Ez, ez gendun, e, arteen, e, umea juun nintzen ni basoare eta bitarteen <i>eskolan</i> eo ibiltzen giñen. Da eskolan, e, <i>apaiz zahar</i> bat bagenuun. <i>Gabilleneen</i>, eo, eoten zan, e, da harek ke deskuidau ezkeo <i>ematen zittun earrak</i></p> <p>m.—Premiazkoa ziñen hori (farrez Josemari) guztik, ke</p>

GEG 1-2	E	<p>A,jm.—(Farrez) Bai, bai. Behiñ, e, bi, e, <i>intxaurrek</i> ziin <i>plazan</i> hor da, <i>intxaurrek</i>, ke (farrez)</p> <p>AB,jm.—Oaiñ <i>gaziñarbolak</i> dauden, <i>gaziñ amerikano arbola</i> hoiek dauden tokian</p>
VIII-Erlijioa, elizkizuna		<p>A,jm.—Intxaurrek zien hor, bi intxaur. Da intxaurrek beziz onak iziten zittuen da. <i>Pater zahar</i> hoi han eoten zan. Da biok, nitta beste nee lagun bat, <i>Lasane</i>, eo, <i>San Kristobalen</i> hiltzoen <i>gerraketa gerraten</i>. Da intxaurren gaiñen harrapau giñuzten</p> <p>—Gozook zeerek? —azpittita (farrez)—</p> <p>—Hemen ddiu motel oain. Hi je juun hai hauzko aarrea ta ni honuzkoa ta biok ihasingoziu horri (farrez)</p> <p>Gu... bigunñek geunden, etziun inportaik salto eiñatio ta</p>
GEG VIII-11, 19	G 5	<p>AB,jm.—Zenbat tute bezela?</p> <p>A,jm.—Arteen, e, sei zazpin bat urte, <i>motil koskorrak</i> arten. Da saltau aa <i>intxaurretik</i> biok ihasi giñon. Baño urrungo eunen <i>eskolan</i> harrapau giñuzten. Holako koskorrak (eskubiko eskua buru gain eskubiko aldera eramaten du Josemarik) atea zitzaigun <i>makillakin</i> jota, burun (farrez)</p> <p>m.—Earki ein zitzun (farrez Josemari)</p>
I-Janzkera II-Eritasunak eta osaga- rriak		<p>A,jm.—(Farrez) <i>Intxaur ostokin txapela</i> azpittik jarritta eeee ibiltzen genun, hazi hazitziin <i>koskorrak</i> (farrez)</p> <p>AB,jm.—(Farrez) Hori da, hori da!</p> <p>A,jm.—Bai eman, ematen zittun earrak! Ñea!</p> <p>AB,jm.—Gogoatzeko moukoak</p> <p>A,jm.—Bai! Intxaur... (farrez)</p>
1-2		<p>AB,jm.—Eta bi intxaur hoiek <i>plazan</i> esan dezu ziela</p> <p>A,jm.—Bai</p> <p>AB,jm.—Ta gutxigorabera zein lekutan edo zeuden bi intxaur hoiek?</p> <p>A,jm.—Intxaurrek? Horik, horik oain, e, arbolak taare</p> <p>AB,jm.—Bai</p>
VIII-20		<p>A,jm.—Bat bertako zea hartan, arbola baten ondon, da bestea hola hondon, plazea re diferentuta dau oain. Zuzenduta dau asko. Ordun aldapea eo zea zan han. Luzegoa re bai. Eztait. Leku gehiago re bai, baño (eztulka amona, pixka bat) ttitututa <i>elizea</i> ere han ementzeon da</p>
GEG VIII-20, 11 1-2	E	<p>AB,jm.—A, ar bañan arten ez al zan elizaik ala?</p> <p>A,jm.—...<i>elizea</i> goien, <i>eskolea</i> daon lekun zoen elizea lehenau</p> <p>AB,jm.—Oraiñe, oraiñe <i>tabernea</i> ta</p> <p>A,jm.—Bai</p> <p>AB,jm.—Hor zan orduun elizea lehen, ta</p> <p>A,jm.—Hantzeon hantzeon elizea ta geo han eskolea eintzoen da hor elizea</p> <p>AB,jm.—Hori da. Zenbat urte ziñuzten zuk orduan, eliza egin zu?</p> <p>A,jm.—Eee, bai, sei zazpin bat urte</p> <p>AB,jm.—Baiñan eliza egin zuenean?</p> <p>A,jm.—Eliza ein zoneen ba?</p> <p>AB,jm.—A, bai, ta hau orduan eliza egin aurreko zea da eztá, zuk, ke, pasaizoa oraiñ</p> <p>A,jm.—Bai, bai</p> <p>AB,jm.—Esan dezun hau</p>



Ataun Aia auzoan: elizazpia, eta gorago hilerria. 1984.10.21.7.  
bazkalostean. Ipar-ekialderantz. (AB. jm).

- GEG  
VIII-Esaundak  
eta ipuinak
- A<sub>j</sub>jm.— *Intxaurren histori* hoi (eztulka amona, piska bat)  
AB<sub>j</sub>jm.—Hori da. Ta intxaurren hoiak zeinena zien?  
A<sub>j</sub>jm.—(Hitz moteltasun piska bat). He herriñak  
AB<sub>j</sub>jm.—Baita
- VIII-Erljioa,  
elizkizuna
- A<sub>j</sub>jm.—Apaizak aprobetxatzen zittun  
AB<sub>j</sub>jm.—Harek biltzen zittun, *Paterrek*
- I-2
- A<sub>j</sub>jm.—Herritia da plazeata apaizana aprobetxatzen zittun. Geo baatzea, e, elizea eintzen baatzeare zea zen (amona eztulka piska bat) baatzea haundie zeuken han: udaa ta piku ta frute asko izatentzoon apaiz zahar horrek  
AB<sub>j</sub>jm.—Hori da
- I-8
- A<sub>j</sub>jm.—Hor *Gabillenekok* etortzen zitzaion ba  
AB<sub>j</sub>jm.—Gabillenetik
- VIII-Erljioa,  
elizkizunak  
I-108
- A<sub>j</sub>jm.—Ku kuratzea bai, *Don Juan* eo, *apaiza* oain azkena hildako hoi han *hilloa* zan. Da geo haak etor, haak eaman eitten zittuen gehienak. Hor apaiza, horrek eztzoon ikerrizko zeaik, hoi jokoa ta periitaa juntentzan beti  
AB<sub>j</sub>jm.—A, *Pater* hori (farrez)
- VIII-27, 30
- A<sub>j</sub>jm.—Bai (farrez), bai, hoi e, hoi, e. Majiñat aldiz eoten zan jendea jai goizeen, e, hari atea joteko beldurrez. Mezeu, mezea emateko haen zai tta orduuk pasauta ta hantxe zai, hae haen harentzat eoten. Ta igua, igual etortzentzan ordun *zaldin* gaiñen behetik gora  
AB<sub>j</sub>jm.—Hombre
- VIII-25  
I-2
- A<sub>j</sub>jm.—Bai! *Elizkizunea* ona, é, elizkizune. Hue *obispoa San Martiñea* ekarriatzen da. Baandiaran zoon apillidue. Da:  
—Mezea zeiniek emango diu? —ta:—  
—Baandiaranek emangoik, bestela ezta harrapauko hue  
Ta San Martiñen mezea eman, da obispo kausoik ein bee, *mando* gaiñen jarri ta etxea hue  
—Nun deu Baandiaran? —ta:—  
—Etxea junoan hue —(farrez)—  
AB<sub>j</sub>jm.—Baandiaran altzoon apillidue?  
A<sub>j</sub>jm.—Bai. Baandiaran tzoan apillidue  
AB<sub>j</sub>jm.—Eta bere izena?  
A<sub>j</sub>jm.—Izena Don Prantxiko usteet.. Prantxiko, eo, izenare. Nik, Baandian, Baandiaran. Nik izena eztatit, seeguro ez nau oso, baño Baandiarantzoon apillidue  
AB<sub>j</sub>jm.—Eta bea jatorriz nungoa zan?  
A<sub>j</sub>jm.—Hor, e, (eztarria garbitzen du piska bat) zeakoa *San Martingou* zan hue, San Martin, Gabillenen etxe hortakoa  
AB<sub>j</sub>jm.—Hor hortakoa (sic)  
A<sub>j</sub>jm.—Hor horko, horko, horkoa  
AB<sub>j</sub>jm.—Hau da lehen esan dezun bezela Don Juan txikiñ ne  
A<sub>j</sub>jm.—Bai *don Juantxo*  
AB<sub>j</sub>jm.—Osoa, eztá?  
A<sub>j</sub>jm.—Bai  
AB<sub>j</sub>jm.—Osoa?
- I-10
- A<sub>j</sub>jm.—Don Joanen. ne, osoa En hue, bai osoa  
AB<sub>j</sub>jm.—Hori da, hori da. Osaba, ederki. Ta zenbat, te, urtean egon zan hori hemen?

- GEG  
I-2 E  
A,jm.—Honepe eeee hogei bat urte bai pasauko zittun hemen. Da geo aixkenen, ne, beak nahi etzola eo, *etxea plazen* barrenen zoon horrek, beak eindako etxea. Da  
AB,jm.—Plazen barrenen?
- I-8  
A,jm.—Bai plazen barrenen, eskinan. Sarea oain dauneko hartantxe. Eta zeai, e, *Bikario etxei* puskea, zea, cantxita zeon gaiña ta han azpitik iturrie ta ure ta oaiñ urek jarritta daude baño orduun etzeon urik, iturritatio jendeek auntzikin eamaten zittun. Da haak librau ta *sue eman* da erre eintzoon etxea juuteko jarri zenen  
AB,jm.—Bueno!  
A,jm.—Geo gauen sutu zan, da juntau juntau zan jendea ta:  
—Nun da *bikarioa*? —ta:—  
—Hemenetxeok ni  
Besten, ne, beste etxen zeon lehio, oaiñ daun leiotik beida. Baño hark erre eintzoon bee etxea  
AB,jm.—Hori da, hori da, hori da! Bueno, bueno!  
A,jm.—Bai!  
GEG  
VIII-12 G  
6  
AB,jm.—Eta eskolan, ne, noiztik hasi ziñen zu joaten eskola, horrea?  
A,jm.—Es *eskolan*?  
AB,jm.—Bai  
A,jm.—Batee ahal gendunen, ene, gaztetatik, je je (farrez) (amona eztulka piska bat)  
AB,jm.—Hoti da! Hori da! Zortziurtearte eztá, basoa joan arte?  
I-10  
VIII-14  
A,jm.—Bai, bai basoa joan arte  
AB,jm.—Ta neska ta motil batea eoten ziñeten?  
A,jm.—Bai, bai, danak  
AB,jm.—Zenbat lagun bezela  
A,jm.—Gu, e  
AB,jm.—Biltzen ziñeten?  
A,jm.—Bai gu, e, hogeitamar berrogei bat hortxe, ume jendea, dana honea biltzen zien ba, ta  
I-1  
A,jm.—Aieko danok, eztá?  
A,jm.—Bai, bai, danak  
I-1  
AB,jm.—Ergonekoik eta  
A,jm.—Ez, ez  
AB,jm.—Danok Aiekok  
A,jm.—Ergonekok, ke, iñoiz hola zeotzer (eztarria gatbitzen du, piska bat) eroso eo zeolako baño ez, ez. Aiekook gu danok (!) jenealen  
I-88, 90  
VIII-ikastola  
AB,jm.—Baita, baita! Eta zean, ne, eskolako joaten ziñetenean nola juntziru joaten ziñeten?  
GEG  
I-88, 90  
VIII-ikastola E  
A,jm.—Eeeeeee geunden bezela  
m.—...(hitz bat edo beste)  
AB,jm.—Bai  
A,jm.—Oain bezela, ez, e, zeakin arropakin da bestelakokin ahal zana *jantzitta* baño  
m.—Majiña  
A,jm.—Beintze, te  
m.—Majiñatxo.. A, *Jaungoikoa!*  
VIII-Erljioa.  
elizkizuna

GEG	E	AB,jm.—Zure honekin batea joango ziñen ba eskolá, elkarrekin joango ziñeten zu ere, eztá, Matista?
		m.—Ee?
	6	AB,jm.—Zure <i>eskolaa</i> honekin batea joango ziñela, eztá?
		m.—Bai, bai, han ibiltzen giñen nunbait?
I-11		AB,jm.—Ta zu zeorri nun jaiotakoa zea, hemen?
		A,jm.—Hemen, hemen (Aiarren, alegia)
		m.—Bai!
		AB,jm.—Hemen. Ordu, e, gogoatzealtzea, orduan, e, eskolaa joaten <i>ziñenean Joxemari</i> kin, da, gogoatzealtzea? Joxemari nola ezautu zendun da?
I-108		m.—E baaai ezautuko nuun, <i>lehéngosu</i> giñen da
		AB,jm.—Hori da! Zeiñ, e, aman aldetik? aitten aldetik?
		A,jm.—Ama, ama, ama gue <i>aitten</i> , ne, <i>arriba</i>
VIII-Erljioa, elizkizuna		AB,jm.— <i>Eta eskolan, ne, denboa guztian, e, orduan, e, Paterrekin edo Gabillenekokin</i> egon ziñan eztá?
I-11 VIII-15		A,jm.— <i>Maixue</i> ta <i>maixtrea</i> etortzen zien
		AB,jm.—Maixue eta maixtrea
VIII-23	8	A,jm.—Horre horrek, e, <i>dotriñeak</i> ematen zien
VIII-Erljioa, elizkizuna		AB,jm.— <i>Paterrek?</i>
		A,jm.—Bai
		AB,jm.—Eta bestela eskolea maixuk eta maixtrak
		A,jm.—Maixuk eta maixtrak, bai, bai!
		AB,jm.—Zeintzien, ne, maixue eta maixtra hoiek?
VIII-15 I-11, 1	6	A,jm.— <i>Kastellanok</i> ordun ziin (!). Guk, kemen, ne, zeakoa, <i>Dendaberrikoa</i> bat. Oain, oaindi eztie urte asko Uan, zean, ne, <i>Uarten</i> hil dala maixtrea, hemen urte askon eintzona
		AB,jm.—Uarten
		A,jm.—Bai, bai
		AB,jm.—Hor, Uarte Arakill edo Uarten
		A,jm.—Bai, bai!
		AB,jm.—Edo Uarten
I-1		A,jm.—Orduan <i>Mária, geo</i> Ameikanokin ezkondu zan hue, Olaaztiko ameikano atekin ezkondu zan hue. Ta, baño harek urte askoon! Oiñez etortzen zan hue <i>Sangregoriotio Aiea</i> ta juun ne bai!
		AB,jm.—Hori da
		A,jm.—Diario!
		AB,jm.—Bañan esan dezu neska ta mutil batea egoten ziñetela, eztá?
		A,jm.—Batea!
